

# **BIZKAIKO ARRAIN KONTSERBA INTERPRETAZINO GUNERAKO DIBULGAZINO PROIEKTUKO EDUKINEN IDEIA LEHIAKETAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

## **1. Xedea.-**

Lehiaketa honen xedea Bizkaiko Arrain kontserba interpretazino gunerako proiektuaren edukinen eta erakusketaren proposamena egitea da.

## **2. Idea Lehiaketa.-**

Bermeon arrantzak garrantzi izugarria izan dau eta oraindino badauka. Baina, tamalez, egungo merkatu lehiakorrean oso gatxa da enpresak mantentzea, eta Bermeoko plangintza estrategikoan azaltzen da arrantzagaz zerikusia daukien azpiegiturak mantentzea komenigarria dala, herriaren nortasuna mantentzeko eta bertoko kultura zabaltzeko, herriaren ekonomia beste esparru batzuetan, adibidez turismoan, murgildu behar bada be.

Ormaza lantegia Bermeoko Udalak erosi eban 2004ko irailaren 6an, eta erosketa horren helburua ekipamendu turistiko kultural bat bertan kokatzea zan, ekipamendu bat arrain kontserba lantegien ondarea batu, ikertu eta erakusteko, herriko kulturaren eremuan.

Ormaza lantegian kontserba munduaren interpretazino zentro bat egitea arrazoiketa osoz egindako apustu bat da. Ganera, egungo egoera ekonomikoa kontuan izanda, eta Bermeo inguruan hirugarren sektoreari zuzenduta egingo diran inbertsinoak kontuan izanda (Sukarrietako Guggenheim adibidez) Bermeok bere eskaintza turistiko, kulturala eta ekonomikoa ondarean oinarritutakoa izatea ezinbestekoa da, batetik, eskualdeko eskaintza aberasten dauelako, eta bestetik, galdu behar dan herriko ondarea zaintzeko eta zabaltzeko erantzukizuna Udalarena dalako. Bermeo bere itsas ondarea berreskuratu nahian dago eta horretarako hainbat proiektu eta zerbitzu martxan dagoz eta beste batzuk egiteke dagoz.

Bizkaiko Arrain Kontserba Interpretazino Zentroaren edukinen prestaketa Ideia Lehiaketa baten bitartez bideratzea ikusi da egokien. Garrantzi handiagoa daukalako egitasmoagaz batera doan idea bat aukeratzeak idea horren emaitza teknikoak baino, beti ere, idea hori teknikoki eta ekonomikoki bideragarria dala ikusten bada.

## **3. Aurretizko baldintzak.-**

Ideia edo proposamen bakotzak, ezinbesteko baldintza honeek izango dauz kontutan:

-Dibulgazino proiektuaren kokagunea, izandako kontserba lantegi bat.

-Arrain kontserba historiagaz eta errealitateagaz lotura izan behar dauala.

-Bermeoko historiagaz eta kontserba lanagaz izandako esperientziagaz lotura izan beharko dauala

-Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria dan era ulerkor batetan argitu beharko da.

-Ideia, osotasunean, ulerkorra izango da.

-Ideia, errealitatean zelan garatu leiken adierazi beharko da.

#### **4. Lehiatzaileak.-**

Hautagaiak pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahal dira, eta ideia egoki bat aurkeztu eta garatzeko gaitasuna dabela kreditatu beharko dabe, egokiak diran agiri, curriculum edo adierazpenen bitartez, beti be Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeko 43. artikulua eta ondorengoan arabera.

Lehiaketa honetan parte hartzeko ez da inolako klasifikaziorik eskatzen.

Lehiaketa honetako partehartzaileak gutxienez interpretazino zentro bat garatu edo kudeatu izanak izan behar dira.

Hautagaiak lehiatzeko gai izango dira, aurrerago zehaztuko diran betebeharrak betetzen dabezala kreditatu ezker.

#### **5. Prozedura eta lehiaketaren esleipena.-**

Lehiaketaren esleipena aitaturako 30/2007 Legearen 172. artikuluan xedaturako prozedura jarraituz egingo da.

Lehiaketa fasearen puntuaketan, aurkeztutako lanak 9. atalean zehaztutako irizpideen arabera neurtuko dira.

Epaimahaiak, askatasun osoa izango dau egokiak diran erabagi nahiz proposamenak egiteko, aurkeztutako lanen ganean. Horretarako, aitaturako irizpideak baino ez dabez eukiko kontuan.

Proposamen, erabagi nahiz aukeraketak, parte hartzaileen anonimatua bermatuz egingo dira. Hori dala eta, azken erabagira arte, hau da,

behin betiko aukeraketa arte lanen jabegoa ezagutu ez daiten, egokiak diran neurri guztiak hartu ahal izango dira.

## **6. Lehiatzaileen eskura egongo dan dokumentazioa.-**

Parte hartzaileek honako dokumentazioa kontsultatu ahal izango dabe:

-Lehiaketaren Baldintza agiriak.

-Egungo eraikinaren planoak, neurriak, egitura, e.a. Dena den, ideia lehiaketa hau eta eraikinaren proiektu teknikoa erabatera joango dira, eta Udaleko arkitektoarekin harreman zuzena izango dau parte hartzaileak momentu guztietan jakiteko eraikinaren ezaugarriak eta eraikinaren aukerak.

## **7.- Parte hartzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa.-**

Lehiaketan parte hartu nahi dauan edonork, Kontratugilearen profilean (web gunean) argitaratutako iragarkian zehaztutako epe barruan, zarratutako gutunazal bi aurkeztu beharko dauz. Gutunazal horreen kanpokaldean, honako izenburu hau jarri beharko da: "BIZKAIKO ARRAIN KONTSERBA INTERPRETAZINO ZENTRORAKO PROIEKTUAREN EDUKINEN ETA ERAKUSKETAREN IDEIEN LEHIAKETA". Izenburuaz gain, pertsona fisiko nahiz juridikoaren izena azalduko da.

Era berean, gutunazal bakotxan, A edo B gutunazala dan zehaztuko da.

Gutunazal bakotxaren edukia honakoa izango da:

A gutunazalaren edukina:

- Eranskin legez agertzen dan eredia era egokian beteta.
- Pertsona fisikoen kasuan, NANaren kopia eta, pertsona juridikoen kasuan, eratze eskriturak. Azken kasu honetan, ordezkariaren notario ahalordea be aurkeztu beharko da.
- Ideian parte hartu dauan/daben pertsonen curriculumak.
- Antzeko lanetan daben esperientziari buruzko informazioa.
- Zerga eta Tributu betebeharrak beteta eukitearen ziurtagiriak eta Jarduera Ekonomikoen Zergan inskribatuta egotearen agiria nahiz azken ordainagiria. Salbuetsitako kasuetan, salbuetsita egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- Kontratatzeko debekurik ez dauala aitortzea.
- Kaudimen ekonomikoa kreditatzeko agiria.
- Kaudimen teknikoa kreditatzeko agiriak.

B gutunazalaren edukina:

1. Ideiaren deskribapen orokorra, puntuz puntu eta proiektuaren atal guztiak garatzen dauzanak. Ideiaren abiapuntua eta oinarritzen dauzan arrazoen deskribapen orokorra. Aukera ezberdinak egon ezker, danak garatu beharko dira aitaturako zehaztasun eta deskribapenen arabera.
2. Ideiaren garapena Ormaza lantegiaren eraikinaren barruan eta egokitzapena (kokapenak, proiektuaren dibulgazio estrategiak, indarguneak, e.a).
3. Ideiaren garapen tekniko orokorra: beharrezko obrak, materialak, baliabideak, (bai langileria arlokoak bai hornidura arlokoak), tresnak, azpiegiturak (ura, argindarra, e.a).
4. Ideiaren diseinua eta historia, arrain kontserba munduagaz eta Bermeoko herriagaz dauan loturari buruzko argibideak nahiz deskribapen orokorrak.
5. Proiektua egikaritzeko gastuen memoria laburtua, partida eta kontzeptu bakoitzeko zehaztapenakaz.
6. Aurreko puntuagaz bat eginez, proiektuaren bidegarritasun ekonomikoa eta turistikoaren laburpena.

Grafikoki:

1. Ideia orokorraren urrerapen bat

Dokumentazio grafiko nahiz idatzizkoaren 3 ale aurkeztu beharko dabez lehiatzaileek.

## **8. Hizkuntza**

Euskerak lehentasuna izango dau beti. Hala ere, dibulgazioa Ingelese, frantsesez eta gaztelaniaz be eskainiko da.

Kontutan eukiko da hizkuntza paisajea euskeraz izan beharko dala orokorrean eta, dibulgazio zehatzetik kanpoko hizkuntza nagusia be euskera izango dala.

Horretarako, Bermeoko Udalean dagoen toponimiari buruzko lana erabili ahal izango da eta Euskera Sailak beharrezko laguntza teknikoa eskainiko dau.

Hori horrela, partehartzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa euskeraz egongo da eta betebeharrak hau dokumentazio eta agiri guztierik aplikatuko jake. Horrela egin ezean, parte hartzaileak prozesutik kanpo geratu ahal izango dira.

## **9. Prozedura eta epeak.-**

Parte hartzaileek, deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean aurkeztu beharko dabe goian zehaztutako dokumentazioa.

Eskaria aurkezteak Baldintza agiri honegaz ados egotea suposatuko dau.

### **9.1. Dokumentazio orokorra aztertzea.**

Deialdian parte hartzeko epea amaitu ondoren, lehen zehaztutako A gutunazala zabalduko da eta baldintza agiri honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez dabezan eskariak zuzenean baztertuko dira. Izandako akatsak zuzengarriak dirala ikusi ezker, honek zuzentzeko 3 laneguneko epea emongo da eta, epe horretarako zuzentzen ez badira, parte hartzeko eskubideari uko egiten jakola ulertuko da.

Behin dokumentazio orokorra aztertuta B gutunazala zabalduko da.

### **9.2 Lehiaketa Fasea.**

B Gutunazalean aurkeztutako proiektuak aztertu ondoren, Epaimahaiak, agiri honetan zehaztutako irizpideen arabera puntu gehien atara dauzan proiektuaren barri emongo dau eta egokia dan proposamena luzatuko deitso erabagi behar dauan organoari.

Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak, puntu gehien atara dauzan hautagaiari, proiektua aurrera eramateko zerbitzu kontratuaren esleipena egingo deitso .

## **10. Balorazio irizpideak.-**

Proposamenen balorazinoa egiteko, honako irizpideak hartuko dira kontutan:

- Ideiaren osotasuna, hau da, dibulgetzailea izatea: 40 puntu.
- Ideia oinarritzen daben arrazoen deskribapenak: 10 puntu.
- Kontserba lantegien historiagaz eta errealitateagaz lotura egokia izatea: 20 puntu.
- Ideiaren bideragarritasun teknikoa: 10 puntu.
- Proiektuaren bidegarritasun ekonomikoa: 10
- Proiektua garatzeko kaleratutako prezioa hobetzeagaitik: 10

## **11. Bateriaezintasunak eta kanporatze kausak.-**

Epaimahaiko kideek, epaimahai honetan parte hartzeari uko egingo deutsoe Prozedura Administratibo Orokorra arautzen dauan 30/1992 Legearen 28. artikulua jasotzen dauan kasuren batean aurkitu ezker. Horretarako, epaimahaiko Lehendakariari, bateraezintasun kasuren batetan egon leikela jakinarazi beharko deutso.

Aitatutako bateraezintasun arrazoi horreek, lehiatzaileak kanporatzearen kausak izango dira aldi berean.

Bestalde, automatikoki kanporatuak izango dira, bai aukeratze fasean bai lehiaketa fasean, jarraian zehazten diran kasuetako bateren batetan aurkitzen diran proposamenak:

- Epez kanpo aurkeztutakoak.
- Beharrezko kalitate edo maila baino nabarmen baxuagoa izatea.
- Proiektua garatzeko adierazitako kopurua Udalak zehaztutako prezioetik gorakoa izatea.
- Baldintza agiriak xedatutakoa ez betetzea.
- Epaimahaiko kideen eretxian eragiteko edozelako egintzak burutzea edo jokabideak eukitea.

## **12. Epaimahaia.-**

LEHENDAKARIA:

Bermeoko Udaleko Alkate jauna, edo berak izendatutako ordezkoa.

## KIDEAK:

Bermeoko Udaleko Merkataritza, Sustapena eta Turismo Saileko zinegotzi delegatua, edo bere ordezkaria, saileko kide bat.

Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko zinegotzi delegatua, edo bere ordezkaria, saileko kide bat.

EAKo udal taldeak aukeratutako kide bi

Bestalde hiru teknikari egongo dira eretxiak emateko, baina ez dabe botorik izango:

Turismo bulegoko zerbitzuko arduraduna, edo bere ordezkaria.

Berualako arkitektoa, edo bere ordezkaria.

Bizkaiko Foru Aldundiko Museo Saileko teknikari bat.

Berdinketa egon ezkerrean, Epaimahaiko Lehendakariak, bere kalitateko botoa erabili ahal izango dau.

## IDAZKARIA:

Udalekoa, edo bere ordezkaria izendatutako funtzionarioa. Idazkariak ahotsa izango dau baina inoiz be ez botoa.

Epaimahaia ezingo da eratu edo ezingo dau lan egin, kideen erdia baino bat gehiago gaitzenez ez badagoz eta, horretaz gain, Lehendakaria edo bere ordezkaria nahiz Idazkaria edo bere ordezkaria ez badagoz.

Epaimahaiaren erabakiak, gehiengo soilaz hartuko dira, kontutan eukiz, berdinketa kasuetan, Lehendakariaren kalitateko botoaren bitartez erabagiko dala.

Baldintza agiri honek jasotzen dauanagaz ezingo balira edozelako aspektu edo gertakariak konpondu, Epaimahaiak, egokia dana interpretatu eta erabagitzeko ahalmena izango dau, beti be indarrean dagoen legedia errespetatuz.

## **13. Epaimahaiaren erabakia.-**

Epaimahaiak, alkatuta, aurkeztutako proposamen bakoitza aztertuko dau eta, horretarako, baldintza agiri hau aplikatuko dau zorrotz.

Epaimahaiak, proposamen bakoitxagaz, 9. atalean zehaztutako aspektuak aztertuko dauz eta, kide bakoitxak, aspektuz aspektuko puntuaketa emongo dau.

Idazkariak, batzarrak era egokian burutzen dirala, beharrezko quoruma dagoela eta puntuaketak irizpideen arabera egiten dirala zainduko dau. Era berean, kide bakotzak emondako puntuen jarraipena egin eta, ondorioz, puntuaketa orokorraren fede emongo dau, egokia dan akta altxatuz egingo dana. Akta horretan, azken emaitzak, lehiatzaileen hurrenkera, irabazlearen nortasuna edota lehiaketa hutsik deklaratzearen erabagia jasoko dira.

#### **14.- Irabazlearen saria.-**

Irabazlearen saria hauxe izango da: proiektua garatzeko zerbitzu kontratuaren esleipenduna izatea, kontutan eukita, Udalak, proiektu horren egikaritzean, irabazi dauan ideiarene ganean aldaketak proposatu ahal izago dauazala eta exekuzinoa aldaketa horiei jarraiki burutu beharko dala.

Era berean, proiektuaren garapenagaz bat, proiektuaren bidegarritasun ekonomikoa eta turistikoa aurkeztu beharko dau esleipendunak.

Kontratu horren prezioa, 25.862,07 eurokoa, BEZa kanpo, izango da gehienez (BEZari dagokion zenbatekoa 4.137,93 eurokoa da. Danatara: 30.000 euro), kontutan eukita lehiatzaileek prezio hori hobetu daikela eta euren proposatutako prezioa era egokian zehaztuta eta justifikatuta egon beharko dala.

Bestalde, irabazi ondorengo kontratu horren ordainketa era honetan egingo da:

% 25a kontratua sinatzerakoan

% 75a, proiektu zehatza aurkeztu eta gero

Lehiaketa fasean parte hartuko dabene proiektuene jabetza, Bermeoko Udalarena baino ez da izango. Beraz, proiektuak aurkezten diran unetik aurrera, proiektu eta ideia horreen jabetza udalaren eskuetara pasako da, eskubide moralak salbu.

Proiektua garatzeko eta aurkezteko esleipedunak 3 hilabeteko epea izango dau.

Bermeon, 2009ko urriaren 9an.

## ERANSKINA

### IDEIA LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA

#### Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN, ....., Telefonoa .....

#### Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN edo IFK, ....., Telefonoa .....

Bizkaiko arrain kontserba interpretazino gunea izango dan itsasontzirako dibulgazino proiektuko animazinoa gauzatzeko asmoz Bermeoko Udalak dei egindako Ideia lehiaketaren berri izan dodala, hona hemen nire

#### ADIERAZPENA

1) Hitz emoten dot, nire ideia irabazlea suertatzen bada eta, ondorioz, ideia egikaritzeko kontratua esleitzen bajat, kontratu hori honako prezio honetan burutuko dodala: ..... €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) salbu. Prezio horrer, %..... BEZa erantsiko jako, hau da, ..... €. Beraz, kontratua danatara, (BEZ) barne, ..... euroko prezioan burutzeko konpromisoa hartzen dot. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere.

Bestalde, hitz emoten dot, esleipenduna izan ezker, Kontratu hori burutzeko epea honakoa izango dala: .....

2) Ideia lehiaketa hau arautzen daben Baldintza Administratibo zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ezagutzen dodaz. Horreek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen dodaz oso-osorik.

3) Ordezkatzen dodan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoan araudiak eskatzen dauzan baldintza guztiak beteten dauz.

....., 20...(e)ko .....aren ...(a)

Izenpea